


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizi baten hitzezko erretratua



Saioa Ruiz



Maleta

SERGEI DOVLATOV

Itzultzailea: Amaia Apalauza Olló
Erein-Igela, 2015

Pozik naiz Sergei Dovlatov ezagutu izanaz. Idazle errusiarren artean ohituago gaude Gogol, Puxkin, Txekhov edo Tolstoi bezalako izenetara baina ziurtatu dezaket, behin dastaturik, Dovlatov (Ufa, 1941–New York, 1990) ahazten ez den idazle horietakoa dela. Idazle marjinala, zirkulu literarioak eta fama erabat deuseztatu zituen. Kazetari lanetan arituta (erregimeneko trobadore lana, idazlearen hitzetan), Leningrad edo Tallinnen, bere bizitzako pasadizoetan oinarriturik idatzi ditu lan gehienak. Tartean artikulua honetan mintzagai dugun *Maleta* (1986) hain zuzen ere. Publikatzea debekatu ziotenean, 1978. urtean Idazleen Elkartetik kanporatu zutelarik, AEBetara emigratu zuen. Pasarte honetatik abiatua izan da *Maleta*.

Genero kontuetan sartzea gustuko ez dudan arren, esan daiteke eleberri eta ipuin-liburu baten tarteko zerbait dela, hasiera, garapen eta amaiera egiturarik gabea. *Maleta* barruan dauden zortzi objektu pertsonalek inspiratu dute kapitulu bakoitza: galtzerdi finlandiarrak, bota pare bat, trajea, gerrikoa, jaka, popelinezko atorra, txanoa eta gidari-eskularruak.

Objektu bakoitzari lotua den oroitzapen pilaketa honen bitartez eraikitzen da 60-70 urte bitarteko Sobiet Batasun baten erretratua, eta bertan Dovlatov ikusten dugu, vodka botila lagun, Leningradeko kaleetan zehar bizimodu komunista ortodoxora ohitu ezinean. Objektu bakoitza istorio baten enkarnazioa da, idazlearen bizitzaren garai bati lotua: galtzerdi trafikoan aritu zenekoa, San Petersburgoko alkateari botak lapurtu ziz-

kiona, lan egiten zuen egunkariko erredakzioak, zelatari batekin afaltzera joateko, traje bat erosi zionekoa edo Petri I.a tsarraren aktore-rola egin zuenekoa.

Erregimen sobietikoari buruzko satirak dira. Idazkera arina, zuzena, ironia eta umore absurdua nahasten dituena. *Fernand Léger-en* jaka ipuinean, bere anaiarekin daukan duen amaierako konbertsazioa dugu horren adibide:

“Eta zera galdetzen dit anaiak:

– Zer moduz habil Amerika aldean? Egia al da han eguneko hogeita lau orduetan saltzen dutela vodka?

– Ez diat uste. Ostatuak zabalik egoten dituk, hori bai.

– Eta garagardoa?

– Nahi beste eros dezakek gauez irekitzen duten dendetan.

Adeitasunezko eten bat.

– Gora kapitalistak! Haiek bai azkarrak!”

Zortzietan, *Popelinezko atorra* izenekoak gustatu zait gehien, beharrik, honelako has-tapen batek ez du inoiz huts egiten: “Haurra nintzelarik, haurtzain bat izan nuen: Luiza Genrikhovna. Ganoragabe samar ibiltzen zen, beldur baitzen atxilotuko zuten. Behin, galtza motz batzuk jantzi zizkidan. Eta galtza-zulo beretik sarrarazi zizkidan bi zangoak. Eta halaxe ibili nintzen egun guztian. [...] Banekien trakeski jantzia nintzela. Isilik geratu nintzen, ordea. Ez bainuen gogorik berriz aldatzen hasteko. Orain ere bezalaxe”.

Liburu gomendagarria erabat. Hasieratik amaiera arte irribarreia eragiten duen horietakoa. ■